

Efoma-Batikano'tik.

Aita Santua ikertu dabe, Efoma'ko Abade - Ikastetxe Nagusiko yaupari bari taldekoak. Aureko egun baten Aita Santuaren Ordelari, Merchetti Selvaggiani kardenalaren eskuetat k abadegintza aureko egun baten artu eben. Yaupari bariok euren sendikoakaz aurkeztu ziran. Aita Santuak zorionak emonaz itzaldi bat egin eutsen, lenengo yaupan asita euren biotza maitasunez gartuta bizitza gustian lan gogoz egingo dabela, uste osoa eukela adiraziaz. Abadeak sendi batetik urteteak Yaungoikoa'k sendi gustiarentzat dauken berarizko maitasunaren agerkai dala esanaz biotzez onetsi zituan.

Filipinas'eko Zaindaria.—Aita Santua'ren erabagiz Filipinas'ko Zaindaritzat autua izan da Guadalupe'ko Andra Maria, Amerika - Efiditik urten ebelako, lenengo ugarte urin areitara zuzendu ziran lenengo mixiñolariak, Kristo'ren irakatsiakaz, kistar gizabidea zabaltzeko.

Ulster'ko Katolikotarak Jinebra'ra yo dabe.

Irlanda'n bere azkatasuna lortu ondoren, Besfalt, biztanle geyenak protestanteak ziralako azkatasun onen aurka yaiki ziran. Ingalanda'ko agintariak 1920'n, berezi egin zirean, bertan bizi ziran katoliko ta protestanteai eskubide bardiñak emonaz. Baña protestanteak geyago diralako, bakean ez dautse katolikotarai lagatzen eta oneik, 450.000 dira-ta, euren eskubideak zaindu dayezala eskatzen Jinebra'ko Latefi-Bazkunara yo dabe. Euren asarea agertzen dabe, katoliko -langileai lanik emon gura ez dautselako, eta igaro dan Garila'n izan diran matxinada naspiletan, 70 etxe ondatu dautsiezalako.

Txiña'tik. Mixiñoentzat zoritxar andi bat.

Lanchow'urian, bertako arsenalak eztanda egin dau, bear ba'da komunistek eraginda eta inguru gustian, kilometro batzuetan, triskantza andiak egin ditu. 600 lagun baño geyago il dira. Bertako Gotzañaren etxe, lekaimetxe ta eleiza be ondatuta gelditu dira. Egin dituan kalteak miloi batera elduko dira. Guddenbrock agurgafia gaizki zaurituta gelditu da, idazten egoan gelan bertan. Lekaime eta umezurtzetan ia gustiak zaurituta yausi dira. Zutunik gelditu zana suak ondatu eban. ¡Benetan tamalgafia!

Belgunta edo mixiño-izpatak.

Shangai'n il da, 53 urtedun, Augusto Savio, yosulagun yakintsua. Eriotzeak lan gafantzitsuak eskuartean zituala eroan dau. Zikawei'ko Ikastetxean irakasle ospetsu gasteriaren asieran galenduaz. Baña batez be lan andiak egin ditu Txina'ko Izadi-edestian. Biltegia berak eraldua da, katolikotar Ikastetxea ain ospetsua berak eraldua. Yosulaun artean 35 urtean egin zituan lanak izugafiak izan dira ta galtze aundia izan da yosulaun yakintsu onen eriotza.

Mixiñolari bariak. — Tanghe agurgafia, Ubanghi Belga'ko Vicarius Apostolicus danak, 77 mixiñolari bari lagun dituala, Kongo Belga'runtz urten dau, oneitatik 50 yaupari dira. Emen ikusten da Beljika'k egiten daben alegiña, egizko gizabidea mixiñolari bidez zabaltzen. Sarítan bilatzen ditu mixiñolariak, baña 78 batera oin lez itxasontzi baten bialtzea lenengoz gertatzen dana da.

India'n yaupari bariak ugari.—Ferreira de Silva, Sarkaldeko India'ko Patriarkaren ordelari agurgafiak 80 lagunei «Ordenak» emon dautsez. Oneitatik 16 abade egin ditu. 15 diakono ta 25 subdiakono, eta enparauak beste abadegai - mala batzuetara yaso ditu. Talde edefa benetan mixiño erki baterako.

Ipar - Amerika'ko Latefi - Batza'ko katolikotafen lanak.

Katoliko-Ikasle Bazkunak.—Urteroko batzafa Baltimore'ko Gotzain laguntzalearen Lendakaritzapean egin dabe. Ikasleok mixiñoen aldez lan egiten dabe. 25 Gopatz'en ordelariak bildu dira, eta gauza ikusgafia izan zan, gustiak talde baten Lendakariaren etxe Zuriaren aurétik igaroten ikustea. Gustiak Matai Deunaren eleizan bildu ziran eta, Kristo Efegeren abestia abestu ondoren, Mark Kernnedi aba pantzezkar eta irakasleak itzaldi bikain bat egin eban «Kristo gure Efege ta gure mixiñoak» gaitzat artuta, eta ondoren gure Yaunaren onespena emon eutsen.

Aita Suntuaren Ordelariaren itzaldia «radioz».—Latefi - Batza'ko Aita Santuaren Ordelari Cicognani agurgafiak, irátizkiñez itzaldi bat zuzendu dautse Amerika'ko ikastoletako umeai. Izlariak Kistar-Ikasti-Bazkunatzaz itz-egin eutsen, une atan bazkun onek New York'en batzar bat egiten ziarduala esanaz. Beste bazkun eta anaidi gustien aurétik Kistar-Ikasti -Bazkunak parokí gustietan eraltzea eskatu eban.

Irudidun aldizkingi lizunen aurka. —«South Bend Pharmacy Club» deritxon bazkunak urteroko batzafean, aldizkingi lizunen aurka ekiteko erabagia artu dau. Ofetarako «Lizunkeri aurkako» bazkunai laguntza eskatu dautse. Artu daben erabagia auxe izan da: Irudidun aldizkingiak, geyenez, oitura onen kaltezko gauzak argitaltzen dituela ikusirik, «National Association of Retail Druggist» deritxon bazkuna, besteakaz alkartuta bere gain artzen dau, lizunkeri zabaltzeari guda egin eta bere eragipena esitutea. Onetariko batzorde batek naiko zeregin izango leukela uste dogu emen, olango aldizkingiak amaikatxo kalte gure efiari egiten dautso-ta.

Alemania'ko yasarpena. Gotzain bat espetxean.

Misnia'ko Gotzaña Urila 10'n espetxeratu eben, bere idazkari eta Ordelari orokafagaz batean. Zer dala-ta? Ogasun gayetzaz emondako araudia ez dabelako bete. Olanda'n Mesa-sarien diru-agiri batzuk Alemania'n euki ez dituelako. Berak auzi onegaz zer ikusirik ez dau izan, baña bere menpekoak egin dabelako, zofak ordaintzeko bidezko dana, zigortu egin dabe. Auzia egunokaz ikusi da. Gotzaña'k bere burua ederto aldeztu eban afen, eta argiro agertu efudun ez zala, 100.000 marko ordaintzera zigortu dabe, eta espetxean egin dituan ile bi ta erdin ordez 40.000 marku eratzi dautsez; baña txiroa da-ta, ordaintzen ezpadau iru ilabeteko espetxeaz zigortzen dabe. Enparauak bost urteko lan neketsuetara eta ixun edo multa aundi bategaz zigortu ditue. Gotzañak, bere aldezlariak itzaldia amaitu ebanean, auxe esan eban: «Ni 25 urtean Saxonia'n yaupari izan nazen artean gustiakaz artu-emonak izan ditut. Iñoz guzur baten ez nabe atrapau. Gustiak nitzaz esango dabe: Olango gizon batek ezin ezer eskutau. Eta alemandar Gotzain nazanez gustien aurean argiro diñot, Gure Yaun eta neure kontzientziaren aurean efubako nazala». Alan da be, basati bariok zigortu egin dabe. Eta ondiño be Alemania'n Eleiza'k ez dabela yasarpenik esaten asartu egiten dira!

Paris'ko Katoliko-Ikastetxe ospetsuaren 60'n urtean.

Paris'eko Katolikotar Ikastetxea ospetsua da lurbira gustian. Ikastetxe onen 60'n urtean ospatzeko egin dituen yayen artean Paul Claudel, Prantzia'ko agintarien ordelari, eta idazlerik bikañenetakoak itzaldi eder bat egin dau ikastetxe onen lan edefa goraltzen. Paul Claudel, katoliko biurtutako bat da. Yaungoikoa'k Yaunartze eder bateri begira egoala biotzean ikutu eutson, eta afezkero ezin obeto ziñeste-aldez yokatu dau bere idazlan ugari ta sakonakaz. Itzaldi onetan ederto egiztu dau Ikastetxe onen ospea alde gustietan zabal dagola; eta bere eragipena alde gustietara eltzen dala; bere gogoa, kistartasunaren una dala, azkatasun eta eralbenezkoa, eta bertan ziñeste ta yakidia alkartzen dituan yakitunak eraltzen dirala.

M.'tar G.

Bizkaya

Bilbao.

—Aste onetan garaitz andija ixan dabe Madrilen Euzko Alderdiko aldun jaunak. Au dala ta, Bilbao'ko atzalburubak garai onetzaz ixan diraz barikutik ona.

—Egunotan ipiñi dabe salgai Arana Goiri'tar Sabin'en Biztelezti eder bat. Notin asko ikusi doguz txaidietan idazti ori eskubetan darubela. Aldi onetan bost ogerleko andi aurkituten efez egon ez afen, ainbatek erosi dabe. Egija esan erosteko lakoxia -da. Gareztijan be, merke - merkia ixan be ta. Argazki utzak balijo dabe saneufi ori.

—Astartian Ingiñeru Artezi edo «in dustrialak» omena egin eutsen Usabiaga Madrileko erkaltzain edo miñistruari. Usabiaga euren arteko ingiñerua dabe, eta ziyo ori artun eben omena egiteko. Atatutako omen au bazkari eder bategaz ixan zan Tofontegi jatetxian.

—Pio X'an zorunduntza ezkatzeko otoitzazko jaupa bat ixan zan eguazten goxeko zortzi ta erdijetan Jakoba Deuna'ren ertxadonako altara nagosijan. Jaupa ofetara ainbat kistar zuzendu ziran.

—Barbara Deuna zala-ta, «miña» tako ingiñeruak euran zaindari aldezko jaya ospatu eben. Goxeko amaiketan ixan eben jaupea Nikola Deuna'ren ertxadonan. Jaupa amatuta Carlton'era zuzendu ziran gozalduteko.

—Eguastenian asi zan Deusto'ko zubi bafija lenengo agerkunak egiten. Zubi dotoria laster dogu azi lanian.

—Jaurlarijan eginduz galaso diraz aste onetan iragafita eguazan Euzko -alderdijaren itzaldi eta batzar guztiyak. Erabagi au goi - agintzatik etofikua dabela agertu dau.

—Aste-bafuan ainbat eratako itzaldijak ixan diraz. Eguenian mintzatu zan Zuzentxandi edo «Academia de Derecho», Bidaufazaga'tar Bingen osatzale ospetsua. Barikuban, Arzuaga Jauna osatzale jakintzandian, eta Olano'tar Efamon jauna, bertan egunian aldunetxeko idaztegi aretuan. Iru itzaldi onetara notintza aundija ixan zan.

—Camara de Comercio deritxon bazkunak Azila'n bigafen amabosteroko «Información» deritxon aldizkingija, argitaldu dan.

—Igandean ospatu zan Agustiñuaren Joseba Deuna txadonan, Ortiz'tar Gotzon (g. b.) gogo aldezko jaupea. Gotzon gastea orantsu il da, eta Bizkai'ko Euzko Ikasle Batza'ko bazkidea zala ta, Bazkun onek ospatuba ixan zan, atatu dogun jaupea.

—Urazufutia'ko ikastolak jatetxe bat edegi dabe, beraz laster asiko da jatekuak ume txiroen artian bananduten. Ikastola onek befegun umeri jaten emoteko ustea dau.

—Aldun-etxean Bizkai'ko Bazpatz -matazaliak daben landola berezijan Umientzako - Andrakila- Erakusketea edegi dabe. Erakusketa onek gafantzitsu darua lan egoki au aufera.

—Bata «Unión-Arte» deritxan bazpatzak margosketa-erakusketea edegi dau.

Erakusketa onetan Gernikar margoslari ospetsuba da garale. Zaldunbide gaste euskeltzalia entzutetzuetan-be, entzutetzua dogunik ezin ukatu geinke.

—Bilbao'ko biztanleak aspaldijan azafez diraz, berton emoten diran ziñe loyakaz. Lotsea gordetia ondo litzake kistafan artian. ¿Zer egiten dabe onetzaz agintarijak? ¡Utsa! ¡Boikota! egin dagitsagun ofelango ziñe iguingafijari.

—Larunbatan sartun zan Portugaleteko «Galdames» deritxan pozu zabalian Aleman'dar guda-ontzi eder bat. Guda - ontzi au amar egunian ixango dogu geure artian. Ontzi ofetako itxastar guda mutil pilua egunotan txaide-ziar ikusten doguz.

—Aste bafuan ixan diran ekaitz -gogofak ainbat itxas ontzi kairatu edo porturatu dituz. «Abrea» egunotan ontziz bete - bete eginda agiri jaku.

—Igandean Sorkunde Garbijaren eguna zala ta, Bilbao'ko bazpatz geyenak ospatu eben jai entzutetsu au. Ertxadonan bazan notintza ugari.

—Gexo aldijaz ogeratuta ixan jakun Irizafi'tar Lon, adizkide ezaguna, osatuta txaidian ikusi dogu. Geure zorijonak.

OGOÑOPE

Mañari.

Lenengo barikuz.

Josu'ren Bijotz gozuaren opaz, aspiretako mesan, Jaunartziak eta otoitzak egin ziran. Aintza Bijotz Deun-deunari!

Neskutza'ren egunez.

Sorkunde Orbanbakuaren eguna, Miren alabak andikiro ospatu gendun. Goxian, zortziretako mezan, gustijen Jaunartzia, ta afatsaldian be bafiz, ibildeuna, «prosesiñua», elizpetik egiñaz ta abar, elizkixun edefa egin zan. Bertan, gure txaunburu jaunak, Neskutza'ren aintzak azalduaz, berbaldi edefa egin euskun.

Meza bat.

Sabin gure Irakasle matagafijaren eta anparau ildako aberkidien gogo -aldez, ila onen onen 15'gn., (J. I.) emeko elexan meza bat ospatuko da. Efukizko egintza ofetara aberkide gustijok juak biar gara. Goyan begoz.

Agurtu.

Igandez agurtu genduzan emen, Enbeita'tar Balendin eta Ealo'tar Kalare ezkonbafi begikuak. (Balendin, Kepa gure olerkari andijaren semia da). Aberkide zintzuok, ortik-emetik ezkon-ibiltia ederto eginda etortzala ikusi genduzan. Zorijonak, eta Jaungoikua lagun dozuela ondo - ondo bixi...

Ixurtza'n.

Lengo barikuz Ixurtza albo-efitxuan, San Nikolas efi - zaindarijaren eguna, elizkixun edefakaz ospatu eben. Amafetako meza nagosijan Murgotio Aba agurgafijak berbaldi edefa egin eban.

Lengo urte baten.

Bitxabala bera etofan efiko gixon bateri (il zan bera) itandu geuntson:

—Urlije, mixiolarijaren berbaldija entzutera zuaz?

Eta berak, ifi - bafeka, erantzun euskun:

—Bai zera... Andria etxian daukonak, iñora juan barik be predikaziñorik asko yauken etxian... ¡Zer don aren ekiña...! Ofatik... beti onan ez ixatiafen be, gaurkuatik mixiolarijari eutzuten juan biarko non bai; etxian sermoe bat eta elexan beste bat askotxo don ixan baña...

Ta, ori esanda, gure gixon bafegafija elexara juan zan; eta antxe, pulpituaren ondo-onduon belaunbikotu zan.

MAÑARIKO

Dima.

«Eun dukat».

«Eun dukat» deritxon Lekuona anaien antzezkia bota eben igaro zan igandean Eleiz Gastediko mutilak. Ondo be ondo egon ziraa guztiak. Gente aldra andia egon zan ikusten be.

Gaur domekan, 15'an, Esnaola'ren «Gizon bikañak» autorkia ta «andra gaia naita» botateko gertauta dagoz.

Efentadoreak.

Efentadoreak be aspalditxu onetan ainbat ardura ta gora-bera ibili dabe: ainbat estualdi izan dabe Dima'ko ausitegian ¿Zerk urtengo ete dau?

Gogo iñarkunetara.

Aste onetan Durango'ko Jesuiten etxean izan dira Eleiz - Gaztedi'ko ogeita amafen bat mutil. Gerorantza beste batzuk be joateko dira.

Sorkunde eguna.

Sorkunde Orbanbagearen eguna andikiro ospatu zan dimatar eliztafen artean. Efi geienak artu eban gure Jauna. Afatsaldian, elizkizun ospetsuan, notintza ikusgafiak entzun eutson itzaldi bigun ta gozoa efi onetako seme argia dogun Akesolo'tar Lino Aba Karmeldar gastia.

X. X.

Markina.

Sorkunde eguna.

Ospetasun aundiagaz ospatu dabe Maria'ren alabak Sortzez Garbiaren egun ta bederatzufena. Bederatzufenera lagun asko joaten zan, goxetik batez be. Iluntzean Mertzedeko eleizan oso gogoko eleizkizuna egiten zan. Maria'ren alaba - talde batek abesti gozo ta politak egunero abestu dabez. Orain arte dauken abeslari izena aufera jafaituteko bestean abestu dabe. Sortzez garbiaren egunean goxetik Jaunartze orokor ta Mesa nagusi ta afatsaldeko eleizkizunetan ainbat lagun izan zan.